

ANIMALIAK EDUKITZEAREN GAINEKO ORDENANTZA

Udal mugapean osasungintza eta segurtasun aldetik behar diren baldintzak ezartzea da ordenantza honen xedea, herritarrek, animaliekin batera bizitzerakoan (zakurrekin bereziki), bizi-kalitate egokia izan dezaten, Altsasuko Udalaren eskumen eta beharkizunen esparruaren barnean.

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Udal mugapean animaliak izateko beharrezkoa da osasungintza aldetik arriskurik ez eragitea, animaliak berak arriskugarriak ez gertatzea, hirugarrenei trabarik ez egitea, egokiro edukitzea eta egonlekuak dagozkion higiene-baldintzak betetzea.

2. artikulua. Animaliekin ikusteko duten jardueretarako Udalaren aginduzko baimen edo lizentzia beharko da, eta jarraipena izateko, ordenantza honetan eskatzen diren baldintzak bete beharko dituzte eta geroan nahitaezkozat jo daitezkeen zuzenketak aplikatu, muntadurek eta haietan egiten diren jarduerak kalterik ez dutela eragiten bermatzearen.

Alderdi horiek kontrolatu ahal izateko, Udalaren zerbitzu tekniko eskudunek ikuskatuko dituzte aipatu jarduerak.

3. artikulua. Ukuilu, ixtegi eta, oro har, abeltzaintzako ustiategi mota guztiak, animaliak hazteko tokiak, lagun egiteko edo lehiaketako animalien aterpe eta ospitaleak jartzeko baimena emanen da, soil-soilik, landalur gisa sailkatuak lurrian eta, gutxienez ere, indarra duen legeriak ezartzen duen tartea utzita.

Aipatu instalazioetarako lizentziak jarduera sailkatuen gainean indarra duen legerian ezarritakoari jarraikiz tramitatuko dira.

4. artikulua. Debeku da errentako animaliak etxebizitzaren barnean izatea, edozein delarik haien kopurua. Horrelakorik edukitzea onar daiteke jabeago pribatuko lurretan, behar bezala hesitu edo itxirik badaude, arau honetako 1. artikuluan ezarritakoa betetzen badute eta animaliarengandik ateratzen diren produktuak bere kontsumorako bakarrik erabiltzen baditu jabeak.

Ordenantza honi dagokionez, errentako animaliak dira beren jabeei halako irabazi edo baliabide batzuk ematen dizkietenak.

5. artikulua. Animalia guztien jabeek uneoro bete beharko dute gaitz zoonosiko eta epizootikoei aurrea hartzeari eta desagertarazteari buruz indarra duen araudia.

Epizootiak deklaratzeko badira, aurrea hartzeari dagokionean agintari eskudunek ematen dituzten xedapenak bete beharko dituzte.

Albaitariak eta albaitaritzak-klinikek, beren lanean dihardutela, zoonosi gune edo kasuen berri badute, Udalarik jakinarazi beharko diote berehala.

6. artikulua. Kontrolik gabeko animaliek eritasun kutsagarririk zabal ez dezaten eta horiek pertsona eta ondasunei trabarik ez kalterik egin ez diezaien:

Herritarrek Udalaren osasun zerbitzuei jakinaraziko diete abandonaturik egon daitezkeen animaliak ikusiz gero. Ez da komeni halakoetan herritarrek janaririk ematea.

Orobat, laguntza egiteko edozein animalia kendu nahi duenak Animaliak Babesteko Iruñeko Elkarteari jakinarazi beharko dio, animalia jaso dezan.

Debeku da edozein espezieetako basa-animalia bide edo eremu libre publikoetan barrena ibiltzea, etxekotua izanik ere.

7. artikulua. Udalaren osasun zerbitzuek eraman eta konfiskatuko dituzte behin eta berriz arau-hauste gogaikarriak egiten dituzten animaliak. Eramateko eta konfiskatzeko agindua agintari eskudunak eman beharko du eta animaliak Nafarroan eskumena duen organoaren esku geldituko dira.

8. artikulua. Animalia hilak, haien tamainak aukera ematen badu, material iragazkaitzezko poltsatan sartuko dira, eta bezala itxita, Arbizuko zabortegira eramanen dira.

Debeku da animalia hilak aire zabalean, uberketan eta gainerako eremu publiko nahiz pribatueta uztea.

II. KAPITULUA

Lagun egiteko animalien gaineko arau orokorrak

9. artikulua. Ordenantza honi dagokionez, lagun egiteko animalia da, irabazi asmorik gabe, atsegina eman eta lagun egiten diolako gizonak bereziki etxean zaintzen duen animalia.

10. artikulua. Animalien jabeen edo edukitzaileen ardura izanen da behar diren neurriak hartzea, animaliak etxe nahiz lokaletatik kanpora, inork eraman gabe, atera ez daitezen.

Beren jabe edo edukitzaileen etxetik kanpora behin eta berriz bakarrik ibiltzen diren animaliak abandonatutzat joko dira eta organo eskudunak atzematen ahalko ditu. Honen ardura da animaliekin zer egin inork erreklamatzeko ez baditu legez ezarritako epean.

11. artikulua. Beren animaliarekin jarraitu nahi ez duten jabe edo edukitzaileek Animaliak Babesteko Iruñeko Elkarteari jakinarazi beharko diote, eta horrek bitartekari lana egingen du zerbitzu edo entitate eskudunak animalia jasotzeko. Debeku da udal mugapeko edozein tokitan abandonatzea.

12. artikulua. Espreski debekaturik dago elikagaiak prestatu, erabili eta biltzen diren lokaletan animaliak sartzea eta bertan egotea, baita elikagaiak garraiatzeko ibilgailuetan ere. Orobat, debeku da animaliak elikagaiak saldu edo kontsumitzeko establezimenduetan sartzea.

13. artikulua. Ez dago baimendurik animaliak kultur eta kirol arloko jendurreko ikuskizunetako lokaletan sartzea, ez eta erabilera publikoko igerilekuetan ere.

Orobat, debeku da animaliak eritetxeetan edo anbulatorioetan eta ikastetxeetan sartzea.

Artikulu honetan ezarritako debekuetatik salbuetsirik daude ikusmen urriko pertsonak laguntzeko gida-zakurrak.

14. artikulua. Jendeari ostatu ematen dioten eta elikadura arlokoak ez diren establezimenduen jabeen esku gelditzen da animalien sarrera eta egonaldia debekatzea, tokiaren maila edo kategoria kontuan hartu gabe, baina kasu horretan egoitzaren sarreran ikusteko moduko seinalea jarri beharko da.

Nolanahi ere, debeku horrek ez du indarrrik ikusmen urriko pertsonak laguntzeko gida-zakurrentzat.

15. artikulua. Lagun egiteko animalien erasoaren ondorioz inor kolpaturik gertatzen bada, Udalaren osasun zerbitzuei emanen zaie horren berri, medikuaren azalpena erantsiz. Osasun zerbitzu eskudunek erabakiko dute zer-nolako osasun kontrola eramanen duten zakur erasotzailearekin.

Osasun zentroek Udalaren zerbitzuak jakitun egin behar dituzte, baldin eta laguntza medikoa edo kirurgikoa ematen badiete lagun egiteko animalia bategi erasoturik kolpatuak gertatzen diren pertsonari.

III. KAPITULUA

Zakurren gaineko arau berariazkoak

16. artikulua. Udalaren eginkizuna da zakurren zentsua prestatu eta kudeatzea Altsasuko udal mugapean.

Lau hilabete egitean, udal mugapean bizi diren zakurren jabe eta edukitzaileak beharturik daude haien identifikatzera, une horretan legeriak ezarria dukeen prozeduraren bidez.

Udal zerbitzuek edo albaitaritzak edo profesional partikularrek egiten ahalko dute identifikazio lan hori. Azken kasu horretan, egindako identifikazioen berri eman beharko diete Udalaren osasun zerbitzuei, zentsua eguneratu ahal izateko.

17. artikulua. Xede berarekin _zakurren zentsua eguneratzea_ zakurren jabeak beharturik daude honako hauen berri ematera:

- a) Bajak, heriotza edo desagertzea dela medio.
- b) Beste udalerriren batean zakurrak eskuratu direla.
- c) Zakurren jabetzari dagokionez gertatutako aldaketak.
- d) Jabeen helbide aldaketak.

18. artikulua. Udalerrian bizi diren zakurren jabe edo edukitzaileak beharturik daude animaliei amorraren kontrako txertoa jartzera lau hilabete betetzen dituztenean, eta hortik aitzina ezarrita dagoen birtxertaketa egutegiarekin segitzera.

Txertaketa horiek agertu behar dute animalia-identifikaziorako osasun-agirian, eta horretaz jabea arduratuko da. Txertaketan berri eman behar zaio Udalari.

19. artikulua. Zakur batek ausirik egiten badiu inori, honek gertatutakoa jakinaraziko dio Udalari, eta medikuaren azalpena aurkeztu aldi berean.

Zakur ausikigilearen jabea edo edukitzailea beharturik dago aferean nahasitako animalia-identifikazio datuak ematera erasotua gertatu denari edo haren legezko ordezkariari eta agintari eskudunei.

Udalaren osasun zerbitzuak nahitaezko txertoa egunera dezaten bultzatuko dute.

Zakur baten jabeak uste badu zakurrak amorraren ezaugarriak dituela, edo arrazoi horregatik animalia hiltzen bada, Udalaren osasun zerbitzuei jakinaraziko die.

20. artikulua. Altsasuko herriguneko eremu publiko guztian eta etxeetako sarbide eta leku komunetan zakurrak ibiltzeko katez edo uhalez loturik egon beharko dute, kontrolatzeko gauza den norbaitek gidaturik.

Animaliak josta daitezten, aipatu eremuetatik kanpo aske ibiltzea onartuko da, baina beti beharko dute arduradunen bat inguruan haiek kontrolatuko dituenak.

Nolanahi ere, lehenago noizbait erasorik egin duten zakurrek edota alde aurretik arriskugarritzat jo daitezkeenek nahitaez eraman beharko dute muturrekoa.

Udalerriko agintaritzak zehapena paratzeko ahalmena izanen du zakurrak aipatu baldintzak bete gabe ibiliz gero.

21. artikulua. Udalaren eraginez bahitutako zakurrak identifikatuko dira eta, hori lortutakoan, jabeari gatzigatuko zaio, hamar eguneko epean berreskuratu dezan. Agertzen ez bada, Animaliak Babesteko Elkartearen esku geldituko da.

22. artikulua. Agintaritzaren esku gelditzen diren animaliekin honela jokatuko da:

1. Pertsonak edo beste animalia batzuk kutsatzen ahal dituzten zakur eriak eutanasia bidez hilko dira, albatari baten kontrol eta ardurapean.

2. Animalia osasuntsuak 72 ordu gehiagorako aukera izanen du, inork berreskuratzen ote duen. Animalia entregatu duenak lehentasun eskubidea izanen du.

3. Bigarren epe horretan inork berreskuratzen ez baditu, zakurrak aipatu baldintzetan hilko dituzte.

23. artikulua. Bildutako zakurra jabeari itzuliz gero, animaliaaren identifikazioa eta txertaketak eguneratu beharko dira. Betiere, sortutako gastuak jabearen bizkar izanen dira.

24. artikulua. Zakurrekin ibiltzen diren pertsonak galarazi behar dute haiek kaka egitea espaloi, galtzada, parterre, berdegune eta eremu publikoko nahiz pribatuko beste edozein elementuren gainean, herritarrak ibiltzeko edo jostatzeko baitira, lehenik eta behin.

Zakurra daramana behartua dago animaliak aipatu tokietan utzitako gorozkiak hartu eta eramatera; behar bezala bilduta sartuko ditu eremu publikoan jarritako edukiontzietan. Betiere, zikindutako tokia garbitzeko ardura izanen du.

25. artikulua. Edozein motatako finka edo lokaletan, zaindari lanetan zakurrik baldin bada, ikusteko moduko lekuan ongi seinaturik adierazi beharko da.

Finka eta lokal irekietan katez loturik egonen dira, salbu eta, jabeak edo arduradunak zainduta, animalia jostatzeko askatzen denean.

Esparru itxietan aske egoten ahalko dira, betiere itxiturak bermeak ematen baditu barnetik ez dutela erasorik egingen hausdura, irekidura, eta abarretatik.

IV. KAPITULUA

Arau-haustek eta zehapenak

26. artikulua. Ordenantza honi dagokionez, honakoak dira arau-hauste arinak:

- a) Zakurrak eremu publikoetan eramatea uhalez lotu gabe.
- b) Lagun egiteko animalien gorozkiak bildu gabe uztea eremu publikoan.
- c) Animaliak behar duten mantenerik gabe edukitzea.
- d) Animaliak behar bezalako higiene eta osasun baldintzarik ez duten muntaduretan edukitzea, edo baimenik gabekoetan.

27. artikulua. Ordenantza honen arabera, hutsegite arinak errepikatzea arau-hauste larria da.

28. artikulua. 26. artikuluan adierazitako arau-hauste arinei 60 - 150 euroko isuna ezarriko zaie.

29. artikulua. 27. artikuluan adierazitako arau-hauste larriei 150 - 1.500 euroko isuna ezarriko zaie.

30. artikulua. Arriskutsuak izan daitezkeen zakur arrazen zerrenda hau osatu da:

_American staffordshire terrierra.

_Pitbull terrierra.

_Staffordshire Bull terrierra.

_Mallorkako harraparia.

_Kanarietako harraparia.

_Fila brasildarra.

_Mastin napolitarra.

_Dogo argentinarra.

_Rottweilerra.

_Bullmastiffa.

_Dobermanna.

_Tosa japoniarra.

31. artikulua. Arraza horietako zakur guztiek, arau orokorreaz gain, honako hauek beharko dituzte bete:

a) Aurreko artikuluan aipatutako arrazetako zakurren jabeek ohar berezi bat izanen dute lizentzian.

b) Jabeek adin nagusikoak izan beharko dute eta animalia behar bezala zaintzeko gai.

c) Zakurrak, muturrekoa jarrita dutela, eramanen ditu jabeak, eta metro bat luzetik beherako katez loturik. Inoiz ere ez bi zakur baino gehiago.

d) Finka partikularretan, zaindari lanetan ibiltzen ahal diren arraza horietako zakurrak kontrolatuta egonen dira, kanpora ateratzeko modurik izan ez dezaten.

e) Arraza horietako zakurren jabeak aseguru bat izan beharko du, eragin ditzaketen kalteez erantzuteko.

32. artikulua. Hiru hilabeteko epea dago araudiari egokitzeko.

33. artikulua. Ordenantza honek aurreikusten ez duen hartan, Animaliak babesteari buruzko 7/1994 Legeak arau-hauste eta zehapenei dagokienez ezarritakoari jarraituko zaio.